

■ TRATU ONEN HERRIA- LIDE, JON, LEIRE ETA MIKEL

Kronika

Zergatik sortu zen Kronika eta zer nolako ibilbidea izan du?

Hernaniarrei egunero herrian gertatzen denaren berri emateko sortu zen Kronika, baina beste bi helburu nagusi ere izan ditu sorreratik: euskaren normalizazioan eragitea, eta gizartearen kohesiorako tresna izatea. Horiek izan ditu oinarriak 17 urteko ibilbidean. Hasieran, Hernanira mugatzen zena, Urumea bailarara zabaldu da pixkanaka, eta gaur egun hiru edizio argitaratzen dira, webguneaz gain: Hernaniko, Astigarragako eta Urumeako Kronikak. Ibilbide honetan zehar, hainbat herritar, talde, elkarte eta eragilarekin aritu da elkarlanean Kronika, denentzako tresna komunikatibo eraginkorra izan nahi baitu; euskera denak elkartu eta elkarrengana gerturatzeko tresna bihurtuta, elkarren berri izan eta elkar ezagutu eta ulertzeko.

Zergatik animatu zineten 'Tratu Onen Mapa' prozesuan parte hartzeraz?

Arremanitzaren proposamena jaso genuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaigun mapa horren lanketan parte hartzea. Izan ere, sinesten dugu eguneroan tratu onak aplikatzea ezinbestekoa dela, eta gure jardunera ekarrita, funtsezkoa da bailarako herritar, talde, elkarte eta eragile guztiekin elkarlan sanoa, eraginkorra eta iraunkorra izango badugu, tratu ere halakoa izatea. Azken batean, Kronika herritarrentzat eta herritarrekin egina izatea nahi baitugu.

Nola lotzen dituzue Tratu Onak kazetaritzaren esparruarekin?

Hain zuzen, Kronikaren helburuetako bat izan da herritarren arteko kohesioa lantzea, eta horretarako ezinbestekoa da elkar ezagutu eta errespetatzea. Bide horretan, Kronikan herritar guzti-guztiei ematen zaie beti tokia, edozein gai lantzen dela ere, errespetuz ari badira. Edonork proposatu dezake bere iritzia. Era berean, Kronikak saiakera berezia egiten du beste komunikabide haundietan askotan tokirik izaten ez duten gaiak lantzeko, tokirik edo ahotsik izaten ez dutenei tokia emateko. Hori guztiaz gain, gaiarekiko gizartearen

sentsibilizazioa gero eta haundiagoa bada ere, Kronikak sorreratik egin du berdintasunaren alde; kirolen arloan, adibidez, herriko hainbat taldek Kronikak egindako saiakera eskertu izan du. Eta noski, beti egoten da zer hobetua, eta Kronikak lanean jarraitzen du; aurten, adibidez, Emakundek eskaintako formazioa jaso du.

Zuen ustez, eta Tratu Onei dagokienez, zer indartu behar da Hernani mailan?

Guztien arteko errespetua eta bizikidetzaren sustatzea. Dagoeneko hainbat talde eta eragile aritzen dira horretan, eta hainbat ekimen ere egin dira, elkarren arteko desberdintasunak lasaitasunez adierazteko guneak sortzeko. Aipagarriak dira, adibidez, Errioguardan egindako mahai-inguruak, Bizikidetzaren Aldeko Herritar Ekimenak bultzatuta.

Herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun dauden praktika onak?

Tratu Onen Herria atal honetan agertu diren beste talde edo eragileek egiten duten lanaz gain, aipagarria izan daiteke, baita ere, Izan Gizon taldeak berdintasunaren alde egiten duen lana, gizonen artean beste eredu batzuk sustatzeko, edo Amher elkarteak atzeritarren kultura bertakoei gerturatzeko eta denok elkar ezagutzeko egiten dituen ekimenak, edo kirol taldeek berdintasunaren alde eman dituzten pausuak, edota jaietan edo bestelako ekitaldietan egiten diren omenaldi eta errekonozimenduak. Ondo egindakoak azpimarratzea garrantzitsua da, gaizki egindakoekin ez itsutzeko.

Nola irudikatzen duzue denontzako ona izango den Tratu Onen herri amestu hori?

Herritarren artean harreman zintzoak eta gertukoak izango dituen herria. Elkarrengandik gertu sentituko diren herritarrek osatutako Hernani. Gaizki egindakoak ondo eta modu konstruktiboan esan eta hartuko dituen herri bat, eta ondo egindakoak errekonozitu eta gorai patuko dituen. Elkarrenganako errespetua eta herritar guztien berdintasuna oinarri, batzen dituen horretan indar egingo duen herria, elkar ulertu eta elkarbizitza sustatzeko, desberdintasunak aberasgarriak direla onartuz. ■



Kronikako lan taldeko ordezkari batzuk: Lide Rekondo, Jon Osa, Leire Goñi eta Mikel Ramirez de Alda.

■ EROTIKAN PLAX - ANDONI EGIA OLAIZOLA

“Betirako denak irrika akabatzen du”

Andonik 4 urte daramatza udal teknikari moduan. Gabriel Zelaia eraikinean aurkituko dugu, hara hurbiltzen bagara. Jarduera sexualari gehiegizko garrantzia ematen diogula esan digu, sakratutzat jotzen dugula.

Jaio:
1983.01.27

Herria:
Hernani

Bizitokia:
Donostia

lanbidea:
Tokiko Garapeneko Teknikaria



Andoni, Gabriel Zelaia bulegoan.

Beterrri Buruntza bailara lurralde erotiko bihurtzeko zer falta dugu?
Faltan baino, soberan sexuaren sakralizazioa.

Zein parametro sexual daude jokoan gaur egun?
Sexua sexuarengatik praktikatzeko. Bitartekoa helburu izatea. Hau da, sexuaren helburua, sexua bera izatea.

Ekonomia feminista... zerk aurreztuko lizkiguke hainbat disgustu, gizon nahiz emakumeoi?
Sexua eta maitasuna behingoz bereizteak eta bata eta bestea, modu independente, anitz eta ugarian erabiltzeak.

Lehiatu edo kooperatu? Zein da estrategia sedukzioarako?
Beti kooperatu. Sedukzioa bi pertsonen artekoa den heinean, beti kooperatu.

Ba al dago alderik?
Alde guztiak dira onak, beti ere elkarlanean oinarritzen bada.

Word, jpeg, pdf... zein formatutan bizi izango du?
Hautetako bat ere ez. Software libre eta kolektiboan beti.

Maitasun kontuetan, ekintzailatza ala oposizioak egin?
Dudarik ez, ekintzailatza. Betirako denak irrika akabatzen du.

Enpresan zaila da berritzaile izatea?
Zaila baino ezinbestekoa. Berritzen ez duena errutinaren korrontek eramaten du.

Tutoretza gehiago sustatu beharko lirake maitasun kontuetan?
Nik uste dut jakintzak askea izan behar duela, proba eta errorean dagoela benetako ezaguera. **Gustuko momentua zure lanean?**
Gabriel Zelaia eraikinean gainon-

tzeko erabiltzaileekin konpartitzen ditudan momentu informalk.

PLAZERREN PUTZUA
Zer egiten duzu plazer hutsagatik?
Sexua bat, eta bizi bi.

Mendian ala hondartzan?
Mendian eta hondartzan, binaris-
moak pobretzen gaitu.

Edari inspiragarri bat?
Izerditu eta gero hartzen den ur trago sakona.

Idatzi izan nahiko zenukeen liburua.
Beterrri-Buruntza eskualdearen garapen sozioekonomikoaren eskuliburua.

Whatsapp talde katxondo batentzako izena?
KOOPulutzen.

Udako gau zoro batean biluzik dantzatzeko abesti bat?
Anari: "Gu".

Goiz jaikitzeak merezi duen plana?
Gosaldu, txortan egin eta berriz ohera sartu.

Usain bizi bat...
Belar moztua eta euria egitean.

Txoko sorginduren bat?

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterrri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hurrengo saioak: irailaren 14an (15:30-18:30) eta irailaren 30ean (10:00-13:00). Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu edo [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)

Hendaiko hondartza nudista.

Zintzilik duzun desio bat?
Sexuan ere klase, genero eta arraza kontuak desagerraraztea.

Kalean, gau giroan ikusteko pelikula bat?
"Martín Hache".

SEX-ESALDIA BUKATU...
Desioa paperontzira doa...
berritzen ez bada.

Sexuketan ordu bakar batean...
dena da posible.

Zaindu maite duzun hori, zaindu...
desio duzun hori.

Hamar urte barru... hamar desio gehiago beteko ditugu

Nola esan... egin ezin daitezkeenak?

Tatxan! eta orduan... maitasuna ez zen dikotomikoa izan.

SASIGALDERA
Lagun taldeko norbaitek aldizkako edo zehaztu gabeko bikote harremanak kudeatu nahiko lituzkeela kontatuko balizu, zer aholkatuko zenioke?
Lehen pausoa, sexua eta bikoteak sakratua kontsideratzeari utzi, eta ezin badezu, Plax! zerbitzura jo. ■